



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO MAIATZAREN 31N
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palacios eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2016/05/23KO EZOHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2016ko maiatzaren 23ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- LASER KEN, S.A. ENPRESARI, ATALLU KALEA 18AN DAGOEN PABILOIAN
MAKINAK EZARTZEKO ZIMENTAZIOA EGITEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2016-0219

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu kalea 18an dagoen pabiloian makinak ezartzeko zimentazioa egiteko udal baimena eskatzen du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	17.559,21 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 467,91 €
	Fidantza (%120): 561,49 €.

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2016ko maiatzaren 20an emandako txostenean ondorio hauek bildu ditu:

UA2016_04_22

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

OBRA HAUNDIAK

**ATALLU KALEA 8KO PABILOIAN MAKINAK EZARTZEKO
ZIMENTAZIOA EGITEKO PROIEKTUARI TXOSTENA**



Usurbilgo Udala

ESKATZAILEA: LASER KEN, S.A.
KOKAPENA: Atallu kalea 18, Usurbil
ESKAERA DATA: 2016ko maiatzaren 10.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2016-0219
EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 17.559,21EURO.
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 467,91euro
FIDANTZA (%120): 561,49EURO.

AURREKARIAK

- 2016ko maiatzaren 10ean GRES LASER KEN S.A. enpresaren izenean eskaera egin da Usurbilgo Udalean, Atallu kalea 18an dagoen pabiloian makinak ezartzeko zimentazioa egiteko.

Erlazionatuak:

- HZ.04/2006-0225 : Pabiloiaren egikaritze baimena.
- HZ.07/2005-0068 : jarduera.

TXOSTENA

LASER KEN S.A. enpresaren izenean Usurbilgo Atallu 18ko pabiloian makina ezartzeko zimentazioa egiteko proiektua aurkeztu da Udalean, dagokion baimena eskatuz. Aurkeztu den dokumentazioa da: eskaera orria eta Exekuzio Proiektua, ingeniari teknikoak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia (COPITI Gipuzkoa 2016 05 09). Exekuzio Proiektuak barneratzen ditu: memoria, planuak, hondakinen kudeaketarako azterlana, Segurtasun eta Osasun Oinarrizko Azterlana, Baldintza Plegua, Kalitatearen Kontrolerako Plana, Azterlan Geoteknikoa eta Aurrekontua. Exekuzio Proiektuaren PEM-a 17.559,21eurotakoa da.

Aurkeztutako memorian esaten denez, proiektuaren helburua da: *“el diseño y cálculo para su correcta ejecución de las obras de cimentación para maquinaria auxiliar de la actividad”, “la maquinaria a implantar se prevé ubicar cerca del módulo de oficinas, enfrenteado al potón de acceso de camiones ubicado en la fachada noroeste”, “la superficie de actuación será en un área de 6,9x2,9m2, de la solera existente, dejando el suelo terminado tal cual se encuentra en este momento, no vairándose por tanto las superficie construídas y útiles actuales”.* Beraz, egin nahi den obralanak ez dakar baimendutako eraikinaren hirigintza parametroetan aldaketarik (ez eraikigarritasunean, ez perfilean, ez lerrokaduretan, ez jardueran, ... e.a.), beraz, aurrekarietan azaldu bezala pabiloiak obra baimena eta jarduera baimena badituenez, onargarria da orain egin nahi den obralana.

Horrekin batera, aurkeztu den dokumentazioa aztertuta, honakoa esan daiteke:

- LUR KUTSATUAK 1/2005 LEGEA: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharrari dagokionez zera adierazten da: IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako



Usurbilgo Udala

Sozietate Publikoak egindako EAeko lurzorua polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, LASER KEN S.A. enpresak Atallu 18ko pabiloian egin nahi dituen obrak ez direla lur kutsatuak edota izan daitezkeen arriskuarekin inbentariatua dagoen lurzoruan kokatzen. Beraz ez dago eragozpenik.

- JARDUERA BAIMENAREKIKO EGOKITZAPENA: Edonola, orain ezarri nahi den jarduerareko makina osagarriak, jarduera baimenarekiko handitze edo aldaketarik ekarriko balu, hala izapidetu beharko da.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANAREN AURREKONTUA ETA FIDANTZA: Aurrekontuan Hondekinen Kudeaketa partida finkatu da 467,91,0€-koa. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (561,49€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBRA BAIMENA ETA OBRA BAIMENAREN EPEAK: Edonola, eraikina egokitzeko obrak egiteko dagokion baimena jaso aurretik jarduera baimena eduki beharko da. Horrekin batera, obrak hasteko ezinbestean obra baimena jaso osteko HILABETEKO EPEAN Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da eta Udalaren onspena jaso. Baimenaren epeak izango dira:
 0. Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete
 1. Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.
 2. Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.

ONDORIOAK

Ondorioz, aurkeztu den Atallu kalea 18an makina ezartzeko zimentazioa egiteko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio.

Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnitzazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2016eko maiatzaren 20an.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA/UDAL
ARKITEKTOA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresari, Atallu kalea 18an dagoen pabiloian makinak ezartzeko zimentazioa egiteko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**

- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 467,91 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (561,49 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

561,49 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2016-0219*” jarriaz kontzeptuan.

- Orain ezarri nahi den jarduerarako makinaria osagarriak, jarduera baimenarekiko handitze edo aldaketarik ekarriko balu, hala izapidetu beharko da.
- Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnizazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.
- Juan Amaro Rodriguez ingeniari tekniko industrialak 2016ko maiatzean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldarmioak edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:



Usurbilgo Udala

- a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
- b) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.

- e) Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.